

## Atzerriko beste 13 Erasmus+ ikasle berri etorri dira fakultatera Udaberriko Programa egitera

2017/02/13

Iritsi dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera 2016-2017 ikasturteko udaberriko Erasmus+ ikasle berriak. Ikasturteko bigarren txanda honetan 13 ikasle berri etorri dira; horietatik 11 Hezkuntza programara eta beste biak Komunikazio programara. Ikasle hauek gehitzen dira fakultatean dagoeneko ikasten ari den atzerriko ikaste taldeari: ikasturte osoan Erasmus+ programa egiten ari diren Hezkuntzako bi ikasle eta Ipar Amerikatik praktikak egitera etorritako Texaseko bost ikasleak. **Guztira, gaur egun, atzeritik etorritako 20 gazte daude ikasketak egiten Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.**

Belgika, Lituania, Norvegia, Polonia eta Herbehereetatik etorritako ikasle berri hauek guztiak etorri dira ikastera Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eskaintzen dituen bi nazioarteko programetan: Hezkuntzako Nazioarteko Programa (Teacher Education. International programme. Spring) eta Komunikazio Programa (Media and Communications. International programme).

Argazkiko goialdean, ezkerretik eskubira: Kelvin Hoekstra (Herbehereak), Lien de Martelaer (Belgika), Rosanne Van den Eynde (Belgika), Eva Luyx (Belgika), Dominyka Kriksciukaiyte (Lituania) eta Dipika Sharma (Norvegia). Behealdean, ezkerretik eskubira: Mona Noor (Norvegia), Paulina Janka (Polonia), Simonas Kreismonas (Lituania) eta Emilija Kliminskaite (Lituania). Argazkian falta dira Haben Debsai Kidane (Norvegia) eta Ikus-entzunezko Komunikaziora etorritako bi ikasleak: Pawel Marek (Polonia) eta Myron Wekker (Herbehereak).



Atzeritik etorritako Hezkuntza ikasleetako batzuk Eskoriatzako campusean.